



EBAZPENA, 2024ko otsailaren 11koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egiten duena, Hezkuntza Saileko hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duena.

---

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 29ko EHAA), enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egiten duena, Hezkuntza Saileko hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen.

2023ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, aipatutako hautaketa-prozeduretan onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu zen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, aipatutako deialdiak 5. oinarrian xedatutakoaren arabera, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko salbuespenezko prozesuan onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez deitu zen).

2. artikulua.– Ebazpen hau, bai eta behin betiko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- [-<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/> \(«EPE2022. Lan-legepeko hezitzaileak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua»\) «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».](https://hezigunea.euskadi.eus/(«Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Lan-legepeko hezitzaileak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kategoria) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda»</a></p></div><div data-bbox=)

3. artikulua.– Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztenik. Beraz, onartutako pertsonen prozedura honetan parte hartzetik eratorritako eskubideak izateko, ezinbestekoa izango da oinarri hauen 9. atalean jasotako dokumentuak aurkeztea eta, ondorioz, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, bai eta azterketa medikoa gainditzea ere.

4. artikulua.– Interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen horren aurka, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 11.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
BLANCA GUERRERO OCEJO